


SANTA MARIA ELIZA





SANTA MARIA ELIZA

San Joanekoa bezala aurretik zegoen eliza baten gainean eraiki zuten. XV. mende amaiera eta XVI. hasierakoa da. Era berean, eliza-gotorlekua da hauxe, bere horma lodi eta horma-bularrek erakusten duten moduan. 1984ean monumentu izendatua, gotiko berantiarreko eliza honetan altuera eta korridore defentsiboak nabarmentzen dira.

Oinplano angelu zuzena dauka eta burualde poligonalak du. Beste plazakoak bezalaxe erronda pasealekua dauka. Mendebaldeko fatxadak hiru kofadurako kanpai horma barrokoa du. Behekoroak hogeita hamabost giltzarri ditu eta bertan irudikatzen dira Andra Maria, lau ebanjelari, sei apostolu eta nobleak.

Hiru nabe ditu elizak, erdikoa albokoak baino garaiagoa delarik. Korua, 1530ean beste bat ordezkatzeko egindakoa, estilo platereskokoak da, eta Austriarren armari inperiala dauka, Komunitateen Gerran Karlos I.aren alde egiteagatik lortua. Bestalde, erretaula nagusia – 1999an monumentu izendatua - Lope de Larrea eskultore aguraindarrak egindakoa da 1584an hasita, azken atala egiteaz Francisco de Foronda arduratu zelarik. Elizak bi kapera ditu: San Roke eta San Frantziskorena.

Orobat, aipagarria da errondako pasealekura eramaten duten eskailerak ohiko norantzan ez joatea, baizik eta ezkerrera, eliza erasotzera zioazenei ezpata ateratzeko erdiko zutabeak traba

egin ziezaien, garai hartan soldadu guztiak eskubia zerabiltelako, ezker eskua debekatua baitzegoen. Mendebaldeko ate ondoan, bestalde, lehengo Santa Maria atea ikusi daiteke lurreko kristalera batetik.